

Gessica Notarok bere begitartea erakutsi du, bere bikote ohiak (Edson Tavares) azidoa erabiliz egindako eraso izugarriaren ostean.



Aizue, nik argi eta garbi esango dizuet: hau egin duenak ez luke inoiz kartzelatik atera beharko. Areago, heriotza-zigorra ezarriko baliote, niri bost. Are gehiago oraindik, ez lidake axolarik bat ere horrelako basapizti bat nik neuk tiroz hiltzea (Estatuaren baimenaz).

Harritzen nauena hau da: *“Gaur egun, Edson Tavares Forliko kartzelan betetzen ari da bere zigorra. Brasildarra jaiotzez, kartzelatik ateratzen denean, ezin izango da Italian geratu; aitzitik, bere jaioterrira bueltatu beharko du”*. Orduan, egin duena egin eta gero, noizbait kartzelatik ateratzen eta bere herrira bueltatzen utziko al diote...? Ikusten dudanez, italiarren gizentasuna mito bat baino ez da. Italian benetako gizonak egongo balira, gizatxar horri ez liokete sekula utziko Italiatik alde egiten; bizirik, behintzat, ez. Oinak aurretik, gehienez jota. Eta gero, erraustu, hilda ere ez baitu merezi Italiako lur puskatxo bat beretzat. Eta haren errautsak, sinbolikoki, itsas hondora botako nituzke, kutxa hermetiko batean, eternitaterako eta epitafio honekin: “Hemen datza puta-seme bat”.